HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

Zk-3148

EBAZPENA, 2004ko maiatzaren 26koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketa zuzendariarena, zeinaren bidez onartu baitira Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko herri-ikastetxeetan ordezkapenak egiteko izangaien zerrenda kudeatzeari buruzko jarraibideak.

1995eko irailaren 13ko Ebazpenak, Langilegoaren Kudeaketa zuzendariarenak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko herri-ikastetxeetan ordezkapenak egiteko izangaien zerrenda kudeatzeari buruzko jarraibideak onartu zituen, bi helburu kontuan hartuta. Alde batetik, ordezkapenen zerbitzu bat eskaintzea, EAEko irakasle publikoen multzoko ordezkapenen eskabideei buruz ikastetxeek egiten dituzten eskeei kalitate eta eraginkortasunez erantzungo diena; eta bestetik, ordezkapenetarako izangaien zerrenda bakarra prestatzea, ordezkapenak egiten ari ziren irakasle-taldeek osatua, izangai bakoitzari puntuazio bakarra emanez.

Ebazpen honen abiapuntua da ordezkapenetarako izangaien zerrendak kudeatzeari buruz indarrean dauden jarraibideak bateratu beharra, 1995eko Ebazpenaz geroztik eman diren aldaketak batera bilduz eta terminologia eguneratuz, urriaren 3ko 1/1990 Legeak aldi baterako agindu zuenaren indarraldia amaitu ondoren.

Gainera, alde sozialarekin negoziatu diren aldaketak ere sartu nahi dira, azken urteotako esperientziak frogatu duenari jarraiki beharrezko edo egoki iritzi zaienekin batera, ordezkapenetarako izangaien zerrenda horren kudeaketa eraginkorrago, bateratuago eta eragingarriago izan dadin.

Horiek horrela, honako hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Honako jarraibide hauek onetsi dira: Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko herri-ikastetxeetan ordezkapenak egiteko izangaien zerrenda kudeatzeari buruzkoak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.– Indarrik gabe geratu da 1995eko irailaren 13ko Ebazpena, Langilegoaren Kudeaketa zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko herri ikastetxeetan ordezkapenak egiteko izangaien zerrenda kudeatzeari buruzko jarraibideak onartu dituena, eta hark ondoren izandako aldaketak, ondoren aipatzen direnak:

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

N°-3148

RESOLUCIÓN de 26 de mayo de 2004, de la Directora de Gestión de Personal del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, por la que se aprueban instrucciones para la gestión de la lista de candidatos/as a sustituciones de personal docente en centros públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Resolución de 13 de septiembre de 1995, del Director de Gestión de Personal, aprobó instrucciones para la gestión de la lista de candidatos/as a sustituciones en centros públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, con dos objetivos. Por una parte, proporcionar un servicio de sustituciones que atienda las demandas de los centros educativos respecto a las solicitudes de sustitución del conjunto del personal docente público de la CAPV con garantías de calidad y eficacia, y por otra, configurar una lista única de candidatos/as a sustituciones -asignando una única puntuación a cada uno/a-, integrada por los colectivos que venían realizando sustituciones.

La presente resolución parte de la necesidad de unificar las instrucciones vigentes sobre gestión de la lista de candidatos/as a sustituciones refundiendo las modificaciones que se han dictado con posterioridad y actualizando la terminología, una vez finalizado el periodo transitorio establecido por la Ley 1/1990, de 3 de octubre.

Además, pretende introducir los cambios, que han sido negociados con la parte social, que la experiencia de estos años ha demostrado necesarios o convenientes para facilitar una gestión más eficaz, unificada y operativa de la citada lista de candidatos/as a sustituciones.

En su virtud,

RESUELVO:

Artículo único.– Aprobar las instrucciones para la gestión de la lista de candidatos/as a sustituciones de personal docente en centros públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Quedan sin efectos la Resolución de 13 de septiembre de 1995, del Director de Gestión de Personal, por la que se aprueban instrucciones sobre gestión de listas de candidatos/as a sustituciones en centros públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus modificaciones posteriores que se citan a continuación:

Ebazpena, 1995eko abenduaren 5ekoa (EHAA, abenduaren 20a, 241 zk.).

Ebazpena, 1995eko abenduaren 27koa (EHAA, 1996ko urtarrilaren 8a, 5 zk.).

Ebazpena, 1996ko urtarrilaren 19koa (EHAA, otsailaren 2a, 24 zk.).

Ebazpena, 1996ko irailaren 24koa (EHAA, urriaren 2a, 190 zk.).

Ebazpena, 1998ko urtarrilaren 8koa (EHAA, urtarrilaren 29a, 19 zk.).

Ebazpena, 1998ko ekainaren 23koa (EHAA, uztailaren 14a, 131 zk.).

Ebazpena, 1999ko uztailaren 21ekoa (EHAA, abuztuaren 10a, 151 zk.).

Ebazpena, 2000ko ekainaren 2koa (EHAA, ekainaren 21a, 117 zk.).

Ebazpena, 2001eko urriaren 1ekoa (EHAA, urriaren 17a, 201 zk.).

Bigarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak Ebazpen honek.

Hirugarrena.– Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, ezarritako kasuetan eta moduan egin ahal izango zaio aurka Ebazpen honi.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko maiatzaren 26a.

Langileriaren Kudeaketa zuzendaria,
ITZIAR GARAIZAR AGIRRE.

Resolución de 5 de diciembre de 1995 (BOPV de 20 de diciembre, n.º 241).

Resolución de 27 de diciembre de 1995 (BOPV de 8 enero 1996, n.º 5).

Resolución de 19 de enero de 1996 (BOPV de 2 de febrero, n.º 24).

Resolución de 24 de septiembre de 1996 (BOPV 2 de octubre, n.º 190).

Resolución de 8 de enero de 1998 (BOPV de 29 de enero, n.º 19).

Resolución de 23 de junio de 1998 (BOPV de 14 de julio, n.º 131).

Resolución de 21 de julio de 1999 (BOPV de 10 de agosto, n.º 151).

Resolución de 2 de junio de 2000 (BOPV de 21 de junio, n.º 117).

Resolución de 1 de octubre de 2001 (BOPV de 17 de octubre, n.º 201).

Segunda.– Esta Resolución surtirá efectos desde el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Tercera.– La presente resolución podrá ser impugnada en los casos y formas previstas en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 26 de mayo de 2004.

La Directora de Gestión de Personal,
ITZIAR GARAIZAR AGIRRE.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UNIBERTSITATEAZ KANPOKO HERRI-IKASTETXEETAN ORDEZKAPENAK EGITEKO IZANGAIEN ZERRENDA KUDEATZEARI BURUZKO JARRAIBIDEAK

1. artikulua.– Aplikazio-eremua.

Jarraibide hauetan irizpide batzuk ezarri dira; hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko herri-ikastetxeetan ordezkapenak egiteko izangaien zerrendaren kudeaketari aplikatu behar zaizkionak. Langilegoaren Kudeaketa zuzendariak 1995eko irailaren 13ko Ebazpenak aurrez ikusi zuenari jarraiki eratu zen zerrenda hori.

2. artikulua.– Zerrendan sartzeko betebehar orokorrak.

1.– Hona zerrendan sartzeko betebehar orokorrak:

1.1.– Titulazio akademikoa: ezinbesteko betebeharra da ondoren zehazten diren tituluren baten jabe izatea, edo horietakoren bat eskuratzeko baldintzak betetzea, jarraian adierazten diren mailetarako:

INSTRUCCIONES PARA LA GESTIÓN DE LA LISTA DE CANDIDATOS/AS A SUSTITUCIONES DE PERSONAL DOCENTE EN LOS CENTROS PÚBLICOS NO UNIVERSITARIOS DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO

Artículo 1.– Ámbito de aplicación.

Las presentes instrucciones establecen los criterios para la gestión de la lista de candidatos/as a sustituciones de personal docente en los centros públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, constituida conforme a lo previsto por la Resolución de 13 de septiembre de 1995 del Director de Gestión de Personal.

Artículo 2.– Requisitos generales de acceso a la lista.

1.– Son requisitos generales de acceso a la lista:

1.1.– Titulación académica: es requisito imprescindible estar en posesión o reunir las condiciones para que les pueda ser expedido alguno de los títulos que a continuación se especifican para los niveles siguientes:

a) Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza: maisu/maistra, Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle edo Lehen Hezkuntzako maisu/maistra titulua, espezialitate desberdinetarako ezarritako berariazko baldintzez gain.

b) Bigarren Hezkuntza, Hizkuntzen Irakaskuntzak, Musikalak eta Artistikoak: doktore, lizentziatu, ingeniari, arkitekto titulua, edo irakaskuntzaren ondorioetarako baliokidea.

c) Lanbide Heziketa eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakaskuntzak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoari eta Arte Plastikoetako nahiz Diseinuko Lantegiko maisu-maistren kidegoari erreserbaturiko irakasgaiak): diplomatu, arkitekto tekniko, ingeniari tekniko, goi-mailako teknikari titulua, edo irakaskuntzaren ondorioetarako baliokidea.

Nahi diren irakasgai edo espezialitateak emateko eskatzen diren titulazioak egiaztatu egin beharko dira, eskabideari erantsitako fotokopia konpultsatuaren bidez egiaztatu ere; bestela, ez da eskaria kontuan hartuko. Atzerriko tituluekin batera, homologazio-ziurtagiria aurkeztu beharko da.

1.2.– Euskara-titulazioa: ondoko ziurtagirietakoren bat eduki behar da:

a) 1 edo 2. hizkuntza-eskakizunaren egiaztagiria.

b) Hizkuntza-eskakizunen mailarekin homologatutako edo berdinetsitako hizkuntza-ziurtagiriren bat, martxoaren 9ko 47/1993 Dekretuak (EHAA, apirilaren 2a), hizkuntza-eskakizunak zehazteko irizpideak ezartzen dituenak, hirugarren xedapen gehigarrian xedatzen duenaren arabera. Bestela, urriaren 6ko 263/1998 Dekretuak (EHAA, urriaren 23a), Euskararen Gaitasun Agiriaren eta irakaspostuetarako Hizkuntz Eskakizunen baliokidetzak finkatu, eguneratu eta berresten dituenak, bere 2. artikuluan baliokidetzat jotzen dituen egiaztagiriren bat.

Euskararen titulazioa titulu horren fotokopia konpultsatuaren bidez egiaztatuko da.

1.3.– Irakasgaitasun Titulua:

Oro har, 2005eko irailaren 1etik aurrera, Irakasgaitasun Titulua edo baliokidea izatea, edo hura eskuratzeko baldintzak betetzea, eskatuko zaie zerrenda-irekitzearen bitartez zerrenda honetan sartzea lehen aldiz eskatzen duten izangaiei.

Maisu-maistrak eta Pedagogian lizentziatuak salbuetsita daude titulu hori izatetik.

1.4.– Nahi diren espezialitateei dagozkien eginkizunak betetzearekin bateraezina den gaixotasun edo mugapen fisiko edo psikikorik ez izatea.

Medikuaren ziurtagiri ofizialaren bidez egiaztatuko da.

a) Nivel de Educación Infantil y Primaria: título de Maestro/a, Profesor/a de Educación General Básica o Maestro/a de Enseñanza Primaria, además de los requisitos específicos establecidos para las distintas especialidades.

b) Nivel de Educación Secundaria, Enseñanzas de Idiomas y Musicales y Artísticas: título de Doctor, Licenciado, Ingeniero, Arquitecto o equivalente a efectos de docencia.

c) Nivel de Formación Profesional y Enseñanzas de Artes Plásticas y Diseño (asignaturas reservadas a los cuerpos de Profesores Técnicos de Formación Profesional y Maestros de Taller de Artes Plásticas y Diseño): título de Diplomado, Arquitecto Técnico, Ingeniero Técnico, Técnico Superior o equivalente a efectos de docencia.

No se tendrán en cuenta aquellas solicitudes que no vayan acompañadas de la acreditación, mediante fotocopia compulsada, de las titulaciones requeridas para impartir las asignaturas o especialidades a las que se opten. Los títulos extranjeros deberán acompañarse del certificado de homologación.

1.2.– Titulación de Euskera: es requisito estar en posesión de alguno de los siguientes certificados:

a) Certificado de acreditación del perfil lingüístico 1 ó 2.

b) Certificaciones idiomáticas homologadas o equiparadas con los niveles de los perfiles lingüísticos, de acuerdo con lo previsto en la disposición adicional tercera del Decreto 47/1993, de 9 de marzo (BOPV 2 de abril), por el que se establecen criterios para la determinación de los perfiles lingüísticos, o de alguna de las acreditaciones declaradas equivalentes por el artículo 2 del Decreto 263/1998, de 6 de octubre (BOPV 23 de octubre), por el que se establecen, actualizan y ratifican las equivalencias del Certificado de Conocimiento del Euskera EGA y los Perfiles Lingüísticos del profesorado.

La titulación de euskera se acreditará mediante fotocopia compulsada de la misma.

1.3.– Título de Especialización Didáctica:

Con carácter general, a partir del 1 de septiembre de 2005, a los/as candidatos/as que, a través de procesos de apertura de lista, soliciten por primera vez integrar ésta se les exigirá estar en posesión o reunir las condiciones para que les pueda ser expedido el Título de Especialización Didáctica o equivalente.

Los Maestros y Licenciados/as en Pedagogía estarán exceptuados de la exigencia de este título.

1.4.– No padecer enfermedad ni estar afectado/a por limitación física o psíquica incompatible con el desempeño de las funciones correspondientes a las especialidades a las que se opta.

Se acreditará mediante certificado médico oficial.

1.5.– Diziplinako espediente baten bidez inongo administrazio publikotako zerbitzutik bereizi ez izana, eta zeregin publikoetan jarduteko inhabilitatuta ez egotea.

2.– Ordezkapenetarako zerrendetan sartu nahi dituzten izangaiek, beraz, aurreko paragrafoan esandako baldintzak bete beharko dituzte eskariak aurkezteko epean, baita beteta izateari eutsi zerrendan dauden bitartean.

Dena dela, zerrendetara sartzeko hizkuntza-eskakizuna izateko baldintza salbuetsi egin ahal izango da, hizkuntza-eskakizuna duten izangaien kopurua ordezkoen beharra asetzeko adinakoa izango ez dela aurrez ikus daitekeen espezialitateetan. Eskakizun hori betetzen ez duten izangaiei eskakizuna betetzen duenik ez dagoenean bakarrik deituko zaie ordezkapenak egiteko, eta orduan bakarrik sartu ahal izango dira ordezkapenetarako izangaiak kudeatzeko.

3. artikulua.– Baremaziorako irizpideak eta egiaztatzeko agiriak.

1.– Irakaskuntzako esperientzia.

1.1.– Euskal Autonomia Erkidegoko, MEC lurraldeko, beste autonomia-erkidego batzuetako edo Europako Batasuneko estatu kideen hezkuntza-sareko unibertsitateaz kanpoko herri-ikastetxeetako zerbitzuak, irakaskuntza arautuetan: zerbitzuko bi hilabeteko bakoitzeko puntu 1, puntuazio-mugarik gabe.

Herri-ikastetxeetan emandako zerbitzuak izendapenaren edo kontratuaren eta lanpostu-uztearen fotokopia konpultsatuaren bidez egiaztatuko dira. Zerbitzuorri konpultsatua ere erantsiko zaio aurrekoari, autonomia-erkidego honetatik kanpo emandako zerbitzuak egiaztatzeko.

Birbaremazio-prozesuetan, berriz, ofizioz baloratuko dira jadanik zerrendan dauden izangaiek autonomia-erkidego honetako herri-ikastetxeetan emandako zerbitzuak.

Europako Batasuneko estatu kideetako herri-ikastetxeetan emandako zerbitzuak egiaztatzeko, gainera, dagokion hezkuntza-administrazioaren agiria ere aurkeztu beharko da –zinpeko itzulpenarekin batera-, ikastetxea publikoa dela eta emandako irakaskuntzak arautuak direla egiaztatzeko.

1.2.– Administrazio-baimena duten eta unibertsitateaz kanpokoak diren ikastetxe pribatuetan eta 1.1 paragrafoan esandako entitateez bestelakoen mendeko ikastetxe publikoetan emandako zerbitzuak, irakaskuntza arautuei dagozkienak, ondoko irizpideen arabera baloratuko dira:

a) 2004ko maiatzaren 16ra bitartean emandako zerbitzuak: urteko 0,5 puntu, gehienera 5 puntu.

b) 2004ko maiatzaren 17tik aurrera emandako zerbitzuak: urteko 0,5 puntu, puntuazio-mugarik gabe.

1.5.– No haber sido separado/a, mediante expediente disciplinario, del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas, ni hallarse inhabilitado/a para el desempeño de funciones públicas.

2.– Los/as candidatos/as que deseen acceder a la lista de sustituciones deberán cumplir los requisitos enumerados en el apartado anterior en el plazo de presentación de solicitudes y mantenerlos mientras permanezcan en la lista.

No obstante, podrá excepcionarse el requisito de perfil lingüístico para el acceso a listas, en aquellas especialidades en las que las necesidades de personal sustituto previsiblemente no puedan ser cubiertas con candidatos/as a sustituciones que cumplan el requisito de perfil. Aquellos que no cumplan este requisito sólo serán llamados a realizar sustituciones y pasarán a formar parte de la lista de gestión de candidatos a sustituciones en caso de no existir solicitantes que cumplan dicho requisito.

Artículo 3.– Criterios de baremación y documentación justificativa.

1.– Experiencia docente.

1.1.– Servicios en centros públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma Vasca, del MEC, de otras Comunidades Autónomas o de la red educativa de los Estados miembros de la Unión Europea, en enseñanzas regladas: 1 punto por cada dos meses de servicios, sin límite de puntuación.

Los servicios prestados en centros públicos se acreditarán mediante fotocopia compulsada del nombramiento o contrato y del cese, a la que se adjuntará también hoja de servicios compulsada para acreditar los servicios prestados fuera de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En los procesos de rebaremación, los servicios prestados en centros públicos de esta Comunidad Autónoma por candidatos/as que ya están incluidos/as en la lista se baremarán de oficio.

Para acreditar los servicios prestados en centros públicos de Estados miembros de la Unión Europea será necesario presentar además documento –acompañado de traducción jurada- de la Administración Educativa correspondiente que certifique que el centro es público y que las enseñanzas impartidas son regladas.

1.2.– Los servicios en centros privados no universitarios con autorización administrativa, y en centros públicos dependientes de entidades distintas de las citadas en el apartado 1.1., en enseñanzas regladas se baremarán con estos criterios:

a) Servicios prestados hasta el 16 de mayo de 2004: 0,5 puntos por año, con un máximo de 5 puntos.

b) Servicios prestados desde el 17 de mayo de 2004: 0,5 puntos por año, sin límite de puntuación.

Ikastetxe pribatuetan emandako zerbitzuak ondorengo agiriak aurkeztuz egiaztatuko dira:

– Ikastetxeko zuzendaritzak emandako ziurtagiria (Ikuskaritzak ontzat emana), zerbitzuaren iraunaldia jasotzen duena, edo kontratuaren fotokopia konpultsatua.

– GSINek (Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala) emandako ziurtagiria, ikastetxearen (enpresaren) izena eta alta-aldiak jasoko dituena.

1.3.– Euskal Autonomia Erkidegoko herri-ikastetxeen sarera bildutako ikastetxeetan emandako zerbitzuak, ikastetxea sarera bildu baino lehenagokoak: bi hileko bakoitzeko 0,5 puntu, puntuazio mugarik gabe.

Ikastetxe pribatuetan emandako zerbitzuak bezala egiaztatuko dira.

1.4.– Bigarren Hezkuntzan eta herri-ikastetxeetan Erlijioa irakasgaia ematen egindako zerbitzuak ondoko irizpideen arabera barematuko dira:

a) 1989ko azaroaren 6ra arte emandako zerbitzuak: bi hileko bakoitzeko puntu 1, puntuazio mugarik gabe.

b) 1989ko azaroaren 7tik 2004ko maiatzaren 16ra arte emandako zerbitzuak: 0,5 puntu urteko, gehienez ere 5 puntu.

c) 2004ko maiatzaren 17tik aurrera emandako zerbitzuak: 0,5 puntu urteko, puntuazio mugarik gabe.

Emandako zerbitzuak ikastetxe publikoetan emandakoak bezala egiaztatuko dira.

1.5.– Ondorio horietarako, urtea 360 egunekotzat joko da, eta hilabetea 30 egunekotzat.

Lanaldi partzialeko araubidean betetako zerbitzuak, lanaldi osoan betetakoen puntuazio berdinez barematuko dira.

Egun berean ikastetxe bat baino gehiagotan betetako zerbitzuak direnean, horien arteko onuragarriena bakarrik hartuko da kontuan.

2.– Lanbide-esperientzia espezialitatean.

Baremoa: 0,25 puntu hilabete bakoitzeko; gehienez ere, 15 puntu.

Lanbide-Heziketako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakaskuntzen mailako zerrendetan bakarrik barematuko da (Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoari eta Arte Plastikoetako nahiz Diseinuko Lantegiko maisu-maistren kidegoari erreserbaturiko irakasgaiak), eta izangaia dagokion espezialitatean ageri eta beharrezko titulazioa duenetik kontatuko da.

Ondorengo agiriak aurkeztuz egiaztatuko da:

– Enpresak emandako ziurtagiria, zerbitzaldia jasotzen duena, edo kontratuaren fotokopia konpultsatua, egindako lana zehazten duena.

Los servicios prestados en centros privados se acreditarán mediante la presentación de los documentos siguientes:

– Certificado expedido por la dirección del centro donde conste la duración de los servicios, con el visto bueno de la Inspección, o fotocopia compulsada del contrato.

– Certificación expedida por el INSS, donde conste el nombre del centro (empresa) y el/los período/s de alta.

1.3.– Los servicios en centros integrados en la red de centros docentes públicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco con anterioridad a la fecha de integración: 0,5 puntos por cada dos meses, sin límite de puntuación.

Se acreditarán como los servicios prestados en centros privados.

1.4.– Los servicios en centros públicos impartiendo la asignatura de Religión en Educación Secundaria se baremarán con estos criterios:

a) Servicios prestados hasta el 6 de noviembre de 1989: 1 punto por cada dos meses de servicios, sin límite de puntuación.

b) Servicios prestados desde el 7 de noviembre de 1989 hasta el 16 de mayo de 2004: 0,5 puntos por año, con un máximo de 5 puntos.

c) Servicios prestados desde el 17 de mayo de 2004: 0,5 puntos por año, sin límite de puntuación.

Se acreditarán como los servicios prestados en centros públicos.

1.5.– A estos efectos se considerará como año 360 días, y como mes 30 días.

Los servicios prestados en régimen a tiempo parcial se baremarán con la misma puntuación que los prestados a jornada completa.

En el caso de servicios prestados en dos o más centros, en una misma fecha, solo se considerará el más favorable de ellos.

2.– Experiencia laboral en la especialidad.

Baremo: 0,25 puntos por mes hasta un máximo de 15 puntos.

Se baremará exclusivamente en el nivel de Formación Profesional y Enseñanzas de Artes Plásticas y Diseño (Asignaturas reservadas a los cuerpos de Profesores Técnicos de Formación Profesional y de Maestros de Taller de Artes Plásticas y Diseño), y se computará desde que figurando el/la candidato/a en la especialidad correspondiente posea la titulación necesaria.

Se acreditará mediante la presentación de los documentos siguientes:

– Certificado expedido por la empresa donde conste la duración de los servicios, o fotocopia compulsada del contrato, en que se especifique el trabajo desempeñado.

– GSINek (Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala) emandako ziurtagiria, enpresaren izena eta altaaldiak jasoko dituena.

3.– Espediente akademikoa.

Ziurtagiri akademikoan espedientearen batez besteko nota ageri bada, hori hartuko da kontuan, betiere.

Espedientearen batez besteko nota ez bada ageri, eta irakasgaien kalifikazioak zenbakitan agertzen badira, batez besteko puntuazioa aterako da. Irakasgaien kalifikazioak hitzen bitartez ematen direnean ere, batez bestekoa aterako da, baliokidetasun hauek erabiliz:

Ohorezko matrikula: 10.

Bikain: 9.5.

Oso ongi: 8.

Ongi: 6.5.

Nahikoa, Gainditua, Baliokidetua, Gai: 5.5.

Espediente akademikoan kalifikazioa hitzen bitartez eta zenbakien bitartez adierazten bada, azken hori baino ez da kontuan hartuko.

Espedientean irakasgai baliokidetu edo egokituak agertzen badira, irakasgaia egiterakoan ateratako puntuazioa egiaztatzeko ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko da. Halakorik ezean, izangaiak «nahikoa» kalifikazioa atera zuela joko da. Egokitze-kurtsoaren bidez (curso puente) ateratako titulazioetan, kurtso horretako irakasgaietako kalifikazioak ere hartuko dira kontuan. Batez besteko nota ateratzeko inoiz ere ez dira kontuan hartuko karrera-amaierako proiektuei, tesinei edo antzekoei dagozkien kalifikazioak.

Batez besteko notaren arabera eta ondorengo taularekin bat, ondorengo puntuazio hauek esleituko zaizkio espediente akademikoari:

9tik 10era..... puntu 1.

7tik 8,999ra..... 0,75 puntu.

6tik 6,999ra ..... 0,50 puntu.

5etik 5,999ra ..... 0,25 puntu.

Ziurtagiri akademiko pertsonala bidaltzen ez bada, eta tituluaren edo titulu hori jasotzeko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiriaren fotokopia konpultsatua aurkezten bada, izangaiak batez besteko notatzat nahikoa lortu zuela ulertuko da.

Irizpide bera erabiliko da homologaturiko atzerri-tituluekin, eta horien ziurtagiri akademikoa zinpeko itzulpen eta guzti aurkeztu beharko da.

4.– Musika-jarduera.

Baremoa: 15 puntu, gehienez ere.

Musika-irakaskuntzen mailarako bakarrik barematuko da, musika-tresnei buruzko espezialitateetan, Agindu honen 1. eranskinean jasotzen den baremoaren arabera.

– Certificación expedida por el INSS, donde conste el nombre de la empresa y el/los período/s de alta.

3.– Expediente académico.

En aquellas certificaciones académicas en las que figure la nota media del expediente se tomará ésta en cualquier caso.

Si no figura la nota media del expediente, se obtendrá la puntuación media de las calificaciones de las asignaturas cuando éstas vengan expresadas numéricamente. Si la expresión es literal, se obtendrá la media, aplicando las siguientes equivalencias:

Matrícula de Honor: 10.

Sobresaliente: 9.5.

Notable: 8.

Bien: 6.5.

Suficiente, Aprobado, Convalidado, Apto: 5.5.

Si en el expediente académico se hace constar, tanto la calificación literal como la numérica, se tendrá en consideración únicamente ésta última.

Si en el expediente aparecen asignaturas convalidadas o adaptadas, deberá aportarse la certificación académica acreditativa de la puntuación obtenida al cursar la asignatura. Si no se aporta, se considerará que el aspirante obtuvo la calificación de aprobado. En el caso de titulaciones con curso puente, también se tomarán en cuenta las calificaciones de las asignaturas de éste. No se tomarán en consideración para hallar la nota media las calificaciones correspondientes a proyectos fin de carrera, tesinas, prácticas o análogas.

Al expediente académico se asignará la puntuación en función de la nota media y de acuerdo con la tabla siguiente:

9 a 10..... 1 punto.

7 a 8,999..... 0,75 puntos.

6 a 6,999..... 0,50 puntos.

5 a 5,999..... 0,25 puntos.

En el caso de que no se remita la certificación académica personal y en su defecto se presente fotocopia compulsada del título, o de la certificación del abono de los derechos de expedición del mismo, se considerará que el aspirante obtuvo la nota media de aprobado.

Estos criterios también se aplicarán a los títulos extranjeros homologados, cuya certificación académica deberá presentarse con traducción jurada.

4.– Actividad musical.

Baremo: máximo 15 puntos.

Se baremará exclusivamente en el nivel de Enseñanzas de Música, en las especialidades de instrumento conforme al baremo que se incluye en el Anexo 1.

Lehenengo eranskin horretan zehazten diren agiri edo ziurtagirien bidez egiaztatuko da.

5.– Puntuazioko berdinketak desegiteko irizpideak.

Izangaien guztizko puntuazioetan berdinketarik gertatuz gero, ondorengo hauei jaramon eginez ebatziko dira, hurrenez hurren:

– Zerbitzaldi luzeagoa herri-ikastetxeetan (egunetan adierazia)

– Zerbitzaldi luzeagoa ikastetxe pribatuetan (egunetan adierazia)

Berdinketak irauten badu, abizenen eta izenen alfabeto-hurrenkera erabiliko da, eta urteroko zozketa baten bidez erabakiko da zein letratik hasi.

4. artikulua.– Zerrendaren ezaugarriak. Zerrendan sartzeko baldintzak.

1.– Zerrendaren ezaugarriak, oro har.

Ordezkapenak egiteko izangaiek zerrenda bakarra osatzen dute. Izangai bakoitzari puntuazio bakarra emango zaio, 3. artikuluan ezarritako baremoa aplikatzetik ateratakoa. Dena den, Lanbide Heziketaren eta Musika Irakaskuntzen mailetako ordezkapenetarako, honako hauek gehituko zaizkio, hurrenez hurren, aurreko puntuazioari: lanbide-esperientzia eta musika-jarduera direla-eta ateratako puntuazioak.

Izangaiak honela antolatuko dira: puntuazio handienetik txikienerako hurrenkeran.

2.– Izangaien datuak eta aukerak.

Ondoko xehetasunak agertuko dira zerrendan izangai bakoitzari buruz:

– Abizenak eta izena.

– Bizilekua.

– Egiaztaturiko titulazioa edo titulazioak.

– Egiaztaturiko hizkuntza-eskakizunak.

– Puntuazioa.

Zerrendak, halaber, izangaiek ondoko gaiei buruz egin dituzten aukerak ere jasoko ditu:

a) Eman beharreko espezialitateak.

Laugarren puntuan ezarri denaren arabera, zer espezialitaterako gaitasuna duten, hartarako aukera egin ahal izango dute.

b) Hizkuntza-eskakizuna.

Egiaztatu duten hizkuntza-eskakizunen arabera eta lanpostuaren hizkuntza-eskakizunaren arabera eskainiko zaizkie ordezkapenak izangaiei, 5. puntuan ezarritakoaren arabera. Nolanahi ere, ordezkapenak egiteari uko egin ahal izango diote egiaztaturiko hizkuntza-eskakizunetakoren bati dagozkion lanpostuetan. Halakoetan, ez zaie ordezkapenik eskainiko aukeratutako hizkuntza-eskakizunez bestelakoak dituzten lanpostuetarako.

Se acreditará mediante los certificados que se detallan en el citado Anexo 1.

5.– Criterios para deshacer empates de puntuación.

En el caso de que se produjesen empates en el total de las puntuaciones éstas se resolverán atendiendo sucesivamente:

– Mayor tiempo de servicios en centros públicos (expresado en días).

– Mayor tiempo de servicios en centros privados (expresado en días).

De persistir el empate, se utilizará el orden alfabético de apellidos y nombre, a partir de un sorteo anual que se realizará a fin de determinar la letra desde la que se empezará.

Artículo 4.– Características y condiciones de integración en la lista.

1.– Características generales de la lista.

Los/as candidatos/as a sustituciones integran una lista única. A cada candidato/a se le asignará una única puntuación, obtenida por la aplicación del baremo establecido en el artículo 3. No obstante, para las sustituciones en los niveles de Formación Profesional y Enseñanzas de Música, a dicha puntuación se sumará la obtenida por la experiencia laboral y actividad musical, respectivamente.

Los/as candidatos/as se ordenan de mayor a menor puntuación.

2.– Datos y opciones de los/as candidatos/as.

En la lista figurarán los siguientes datos de cada candidato/a:

– Apellidos y nombre.

– Domicilio.

– Titulación o titulaciones acreditadas.

– Perfiles acreditados.

– Puntuación.

En la lista también se recogerán las opciones realizadas por los/as candidatos/as para las cuestiones siguientes:

a) Especialidades a impartir.

Podrán optar a las especialidades para las que están capacitados conforme a lo establecido en el punto 4.

b) Perfil a impartir:

A los candidatos/as se les ofrecerán las sustituciones en función de los perfiles que tengan acreditados y del perfil de la plaza de acuerdo con lo previsto en el punto 5. Sin embargo, podrán renunciar a hacer sustituciones en plazas de alguno de los perfiles que hayan acreditado. En este supuesto, no se les ofrecerán sustituciones en plazas con perfiles distintos de los que han elegido.

c) Lanaldi osoko edo lanaldi murriztuko ordezkapenak, lurralde historikoaren/en arabera.

Lurralde historiko guztietarako edo batzuetarako ordezkapenak egitea aukeratu daiteke:

– Lanaldi osoan bakarrik.

– Murriztutako lanaldian bakarrik.

– Bai lanaldi osoan, bai murriztutako lanaldian.

d) Irakaskuntza hirueledunak.

Dagokion espezialitatea euskara edo gaztelaniaz bestelako hizkuntzetan ematean datza. Aukera horretara bil daitezke edozein espezialitatetan sartutako izangaiak, baldin eta dagokion hizkuntzaren lizentziatura edo Hizkuntza Eskola Ofizialaren goi-zikloko gaitasunagiria edo baliokide konbalidatua badute.

e) Zeinu-hizkuntzaren aukera.

Aukera honetara bil daitezke «Zeinuen Hizkuntzazko Komunikazio»ko hiru mailetakoren bat egiaztatzen dutenak edo «Zeinuen Hizkuntzako Interprete» aitorpena dutenak.

3.– Espezialitateak.

Zerrenda kudeatzeko, espezialitateak lau mailatan bildu dira. Hona hemen:

a) Maila: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza: DBHko 1. eta 2. kurtsoak.

b) Maila: Bigarren Hezkuntza, Hizkuntzen Irakaskuntzak eta Artistikoak:

– DBHko 3. eta 4. kurtsoak.

– Batxilergoa.

– Lanbide Heziketa.

– Hizkuntzen irakaskuntzak.

– Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakaskuntzak.

c) Maila: Lanbide Heziketa (Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoari eta erreserbaturiko irakasgaiak).

d) Maila: Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakaskuntzak (Arte Plastikoetako eta Diseinuko lantegiko maisu-maistren kidegoari erreserbaturiko irakasgaiak).

e) Maila: Musika-irakaskuntzak.

– Irakasgai teorikoak.

– Musika tresnei buruzko irakasgaiak.

Mailak eta dagokien espezialitateak 2. eranskinean jasotzen dira.

4.– Titulazioak eta espezialitateak.

Haur Hezkuntzari eta Lehen Hezkuntzari dagokion mailan, izangaiek espezialitateak eman ahal izango dituzte 1993ko urriaren 14ko Aginduak (EHAA, azaroaren 23a) eta ondorengo aldaketek maisu-maistren egokitzapenetarako ezarri dituzten titulazioen arabera.

c) Sustituciones de jornada completa o reducida por territorio/s histórico/s.

Podrán elegir para los territorios en los que optar para todos o algunos de los territorios históricos a realizar sustituciones:

– Sólo de jornada completa.

– Sólo de jornada reducida.

– Tanto de jornada completa como reducida.

d) Enseñanzas trilingües.

Consiste en impartir la correspondiente especialidad en otro idioma distinto del euskera o castellano. Podrán elegir esta opción los/as candidatos/as incluidos/as en cualquiera de las especialidades en posesión de una licenciatura del idioma correspondiente o el certificado de aptitud del ciclo superior de la Escuela Oficial de Idiomas o equivalente convalidado.

e) Lenguaje de signos.

Podrán elegir esta opción quienes acrediten alguno de los tres Niveles de «Comunicación de Lengua de Signos» o el reconocimiento como «Interprete de Lengua de Signos».

3.– Especialidades.

Para la gestión de la lista, las especialidades se agrupan en cuatro niveles que corresponden a:

a) Nivel de Educación Infantil, Primaria y Educación Secundaria: 1.º y 2.º curso de ESO.

b) Nivel de Educación Secundaria, Enseñanzas de Idiomas y Artísticas:

– 3.º y 4.º curso de ESO.

– Bachillerato.

– Formación Profesional.

– Enseñanzas de Idiomas.

– Enseñanzas de Artes Plásticas y Diseño.

c) Nivel de Formación Profesional (asignaturas reservadas al cuerpo de Profesores Técnicos de Formación Profesional).

d) Nivel de Enseñanzas de Artes Plásticas y Diseño (asignaturas reservadas al cuerpo de Maestros de Taller de de Artes Plásticas y Diseño).

e) Nivel de Enseñanzas de Música.

– Asignaturas teóricas.

– Asignaturas instrumentales.

Los niveles y sus correspondientes especialidades se recogen en el Anexo 2.

4.– Titulaciones y especialidades.

En el nivel de Educación Infantil y Primaria, los/as candidatos/as podrán impartir las especialidades en función de las titulaciones establecidas para las habilitaciones de los Maestros en la Orden de 14 de octubre de 1993 (BOPV 23 de noviembre) y sus modificaciones posteriores.

Bigarren Hezkuntzari, Lanbide Heziketari eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakaskuntzei dagokien mailan, berriz, izangaiek espezialitateak eman ahal izango dituzte, egiaztaturiko titulazioari esleitutako kidetasunen arabera, 3. eranskinean argitaratzen den titulazioen eta espezialitateen taulan agertzen denaren ildotik.

Titulazioei bi kidetasun-maila esleitu zaizkie, eta horietako bakoitzak lehentasun handiagoa edo txikiagoa du espezialitateak emateko.

a) 1. kidetasuna: konkordantetzat jotako titulazioei ematen zaie, espezialitate baten edukiaren kidekotzat hartzen direlako. Titulazio hauek dituzten izangaiek ordezkapenak egiteko lehentasuna izango dute 2. kidetasuna duten titulazioen jabe direnekiko.

b) 2. kidetasuna: egokitzat jotako titulazioei ematen zaie, espezialitate baten edukiaren hurbilekotzat hartzen direlako. 1. kidetasuneko titulaziodun izangairik ezean bakarrik egingo zaie dei 2. kidetasuneko titulaziodun izangaiei.

Ikasturte bakoitza hasi aurretik, honako hauek erantsi ahal izango zaizkio aipatutako taula horri: taulan jasotako espezialitateren bat emateko gaitzen duten titulazio berriak.

Musika-irakaskuntzen mailari dagokionez, 3. eranskinean ezarri dira dagokion espezialitaterako gaitasuna ematen duten titulazioak.

5.– Hizkuntza-eskakizunak:

HE2 edo baliokidea egiaztatu duten izangaiek: HE2ko edo HE1eko lanpostuetan egin ahal izango dituzte ordezkapenak, berdin dio lanpostu horien hizkuntza-eskakizuna indarrean dagoen edo atzeratuta dagoen.

HE1 edo baliokidea egiaztatu dutenek: HE1eko lanpostuetan egin ahal izango dituzte ordezkapenak, berdin dio lanpostu horien hizkuntza-eskakizuna indarrean dagoen edo atzeratuta dagoen.

Hizkuntza-eskakizunik egiaztatu ez duten izangaiek: HE1 atzeratuta duten lanpostuetan egin ahal izango dituzte ordezkapenak.

5. artikulua.– Prozedurak.

1.– Zerrendak irekitzeko prozedura.

Irakasgai edo espezialitate berririk izanez gero, eta aurrez ikusiz gero zerrendetan dauden izangaiekin ordezkapenetarako langile-beharrak ezin izango direla bete, iragarki bat argitaratuko da ohiko komunikabideetan, dagokien espezialitateetarako zerrenda irekitzeko prozesuaren berri emateko.

Eskabidea aurkezten duten izangaien merezimenduak 3. artikuluan ezarritako irizpideen arabera baloratuko dira.

Langile-beharrak badirau, zerrenda irekita utz daiteke etengabe, eta eskabideak sarrera-hurrenkeraren arabera onartuko dira.

En el nivel de Educación Secundaria, Formación Profesional y Enseñanzas de Artes Plásticas y Diseño, los/as candidatos/as podrán impartir las especialidades en función de las afinidades asignadas a la titulación acreditada establecidas en la tabla de titulaciones y especialidades, que se publica en el Anexo 3.

Se asigna a las titulaciones dos niveles de afinidad, con distinta prioridad para impartir las especialidades.

a) Afinidad 1: a las titulaciones consideradas concordantes por ser afines con el contenido de una especialidad. Los candidatos/as con estas titulaciones tendrán prioridad para realizas sustituciones sobre los que posean titulaciones con afinidad 2.

b) Afinidad 2: a las titulaciones consideradas idóneas por ser cercanas al contenido de una especialidad. Sólo se ofrecerán sustituciones a candidatos/as con estas titulaciones cuando no haya candidatos/as disponibles con titulaciones con afinidad 1.

Antes del comienzo de cada curso escolar podrán añadirse a la citada tabla nuevas titulaciones que capaciten para impartir alguna de las especialidades recogidas en la tabla.

En el nivel de Enseñanzas de Músicas, las titulaciones que capacitan para las correspondientes especialidades se establecen en el citado Anexo 3.

5.– Perfiles lingüísticos:

Los/as candidatos/as que tengan acreditado el PL2 o equivalente podrán realizar sustituciones en plazas de PL2 y PL1, sean estas últimas tanto vencidas como diferidas.

Quienes tengan acreditado PL1 o equivalente podrán realizar sustituciones en plazas de PL1, tanto vencidas como diferidas.

Los/as candidatos/as que no tengan acreditado ningún perfil lingüístico podrán realizar sustituciones en plazas de PL1 diferidas.

Artículo 5.– Procedimientos.

1.– Procedimiento de apertura de listas.

En el caso de asignaturas o especialidades nuevas y cuando se prevea que las necesidades de personal sustituto no puedan ser cubiertas con los/as candidatos/as incluidos/as en la lista, se publicará en los medios de comunicación habituales el anuncio de un proceso de apertura de la lista para las especialidades correspondientes.

